

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bizitza aurrera eraman ahal izateko gure bete beharretako bat elikatzea da, hau da, egunean hiru otordu betetzea (edo gehiago). Gure behar hauek asetzeko familia bakoitzak beren elikagaiak erosi behar ditu, baina batzuetan elikagai horiek hozkailuan sartzean usteldu egiten zaizkigu konturatu gabe, denbora jakin bat pasatzen delako. Horiek bota behar izaten ditugu eta horren ondorioz dirua eta janaria xahutzen dugu.

Beraz, gure produktua mundu guztiari egokitua dagoenez, edozein izan daiteke gure bezero. Denek beharrezkoa dugulako janaria eta horregatik guztiei lagundu gaitzakeen produktu bat delako. Gainera, edozeinek eskura dezake produktu hau, gailu honen kostua edozein pertsonarentzat lorgarria baita.

Familia bat izanez gero, bertako kide guztiek erabili ahal izango dute, bakoitzak haien mugikorretatik kontrolatzeko aukera izango dutelako, hauen mugikorretan **App** bat deskargatuz, "Frigo&Tag" izena edukita.

App honetan produktuarekin lotuta, hainbat segmentazio bereiztuko dira. Aholku, errezeta eta abisu desberdinak emango dizkizu aplikazioak, pertsona bakarra, familia, bikotea.... zaren kontutan izanik.